EUSKALTZAINDIA
REAL ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA

SEBERO ALTUBE, GIZONA

Gernika, 1979-VIII-27
J. M.ª Velez de Mendizabal

Euskaltzainburua, Gernika eta Arrasateko alkateak, euskaltzainak, jaun-andreak, AGUR

1.879.eko Azaroaren 8an, eguerdiko 12etan Klara Lertxundik, Juan Alejandro Altuberen emaztea, haur bat munduratzen zuen Arrasaten. Egun berean izan zen bataiatua Donibaneko herriko Eliz Nagusian. Egutegiko Sainduen Izendegiari jarraituz, alde batetik, eta aitapontekoaren izenaz baliatuz, bestetik, SEBERO MIGUEL ipini zioten Bataio Liburuan jaio berriari.

Juan Alejandro eta Klarak ba zuten aurretik beste seme bat, Benigno, Sebero baino urtebete zaharragoa. Bikoteak, oraindik, beste ume bi izango zituen: Jesusa eta Hilario Mercedes.

Zernolako haurtzaroa izan zuen Seberok? Galderari erantzuteko sendiaren testuingurua aztertuko dut, gaingiroki ez bada ere. Aitak "erementari-tabernari" zuen ogibidea. Bera ezagutu zuten arrasatear guztiongandik mugaketa berbera jaso dut Juan Alejandroren xehetasunak eskatzean: *gizon zakarra*. Zurrutak tiratzen zuen, gainera, eta anaiarrebak sarri ikusi ahal izan zuten aita bere senetik joanda. Etxeko giroa ez zen bat ere ona eta, behin, Benignok lagundurik, Seberok ihes egin zuen etxetik Gasteizko senideengana.

Seberok hamabi urte zituelarik bere ama hiltzen da. Etxe hartako maitasun-iturri bakarra itzali denez harremanak zailagoak egiten dira aita eta gaztetxoen artean. Benignok urte batzu geroxeago bizitzera Argentinara joan den Hilariorengandik berriak eskatzean honela esaten dio honi eskutitz batetan:

"...y con todas las noticias, pues quiero estar enterado de todas tus cosas, pues ya sabes que cuando joven era yo el padre y la madre, si así se puede llamar."

Sendia, bestalde, handitzen doa Juan Alejandro beste bi bider ezkontzen baita, lotura hoietatik seme bana edukiz.

Seberoren abiapuntua ez da, ikus daitekeen bezala, ezertxo ere atsegina. Nola, beraz, iritsiko den mailaraino iristea? Amaren altzoan ezagututako maitasunaren haziak kontrako erreakzioa sortuko du bere baitan. Eta txikitandik saiatuko da barneko lirikotasunak markatzen dizkion bideetatik.

Musika da Seberoren lehen zaletasuna. Juan Jose Rodriguez Arrizabalagak, Arrasaten "Maixu Zaharra" izengoitiz ezaguna, erakutsiko zizkion solfeo oinarrizko kontzeptuak. Herriko organulariaren kargua Victoriano Balerdik 1.892.an hartzean berarekin hasten da Sebero ikasten.

Armonia, musika konposaketa eta beste aurrera zeramatzan Seberok instrumentoak menderatzen zihoan batera. Honela, bibolina, errekintoa, kitarra... Baina beste bat izan zen egun haietan ospe handia ekarri ziona: dultzaina.

Dultzaina-hirukote bat osatu zuten Seberok, bere anaia Benignok eta Kristobal Bedia 9 urteko gaztetxoak. Arrasateko inguruetan ez ezik Euskal Herri osoan ziren ezagunak. Sari batzu ere irabazi zituzten. Hirukote haren kalitateaz ideia egiteko, Kristobalek herriz herri zebilen lehen uda amaitu ondoren 1.000 pezeta eman zizkiola aitari esan zidan behin haren arrebak. Union Cerrajerako orduko soldata 10 urteko mutiko batentzat egunean bi errealekoa zen.

Bitartean Seberok solfeo klaseak ematen ditu herriko Udaletxean eta baita berean ere. Bandako kide dugu zuzendari izendatu arte 1.899.an. Bere ogibidea musikan dagoela ikusten du, lanean ihardunez atsedenik gabe, ezagupide sakonagoak erdiesteko. Eta mugak hedatu nahian, Gernikako Bandarako irten diren azterketetara azaltzen da, kargua berarentzat izanez. 1.901.eko Abenduan gaude.

Seberok bere jaioterria uzten du. Aurrerantzean zer aurkituko duen ez daki baina gizon itxaropentsua dugunez bere indarretan jarri du sinesmen osoa. Ez du sekulan Arrasate ahantziko, aukera duen bakoitzean bere jatorria zein den eza-

GERNIKAN, 79-VIII-27. Euskaltzaindiak Altuberi egindako omenaldia. Ezkerretatik eskuinetara: Mitxelena, Haritschelhar, Abaitua (Gernikako Alkatea), Villasante, Ardanza (Arrasateko Alkatea), Satrustegi eta San Martin.

gutaraziz. Baina Gernikak bereganatu egin du eta bertatik emango dizkigu fruiturik onenak.

Euskararekiko joerak errotu egin du berarengan. Honek beste zenbait alderdi eta giro ukitzeko posibilitatea ematen dio. Musika eta, batez ere, linguistikako ikasketei ekin die gartsuki. Heurei eskaintzen dizkie bere orduak oro. 1.914.eko hasieran Gernikako inguruetako harma lantegi batzuk bat egitea erabaki zuten "Alkartasuna" izenekoa eraikiz. Seberoren ibilbide zintzo eta zuzena ikusirik enpresako arduradunek zuzendaritza eta Kontseiluko Lehendakaritza eskaintzen dizkiote 1.916.an. Hau dela eta, Bandako lana utzi behar du. Eta berarengan fedea jarri zutenak gaizki ez uzteko edo, Seberok "SIVISPACEM" deritzan pistola berri baten patentea lortzen du bi urte geroxeago.

Urte berean, hau da, 1.918.ko Apirilaren 11.an Urkiolako Elizan ezkontzen da Gregoria Gangoiti andereñoaz. Argentinan jaioa izan arren gurasoak bizkaitarrak zituen emakume hau Altuberen euskarria izango da egun honetatik aurrera.

"Bizkorra, urduri eta harro xamarra baina bihotz handikoa" omen zen ongi ezagutu zutenen eritziz. Begirune handia zion bere gizonari eta Seberori aholkua eskatu aurretik ez zen etxean erabakirik hartzen.

Bikoteak ez zuen seme-alabarik izan. Hala ere, Benigno anaiaren andrea hiltzean sei urteko hauen alaba Elixabete hartzen dute etxerako.

Gregoriaren gurasoek emaitza garrantzitsuak egin zizkioten Gernikako herriari. Honela, aitak Buenos Airesen 1.922.an testamentua egitean, bere ondarearen bostena Asilo Kalzadari utzi zion. Honela dio testamentuak: "Siendo el legado valioso, representa un beneficio de alta importancia a la institución legataria". Bestalde, "Gizarte Etxea" egin ahal izateko amaren terreno batzu saltzen ditu sendiak 1.957.an, "en las condiciones de 250 pesetas el metro cuadrado, por tratarse de finalidad benéfica".

Bizitza aurrera darrai. Arrasateko etxe bateko atarian irakur daitekeen "Solus labor parit virtutem sola virtus parit honorem" esaldiaren inguruan jasotzen ari da bere mundua Sebero. Eta honela, euskara eta musikaren gaineko

artikulu, hitzaldi eta liburuak euskal "erresistentzian" abangoardiako punterengo tokia ematen ari zaizkio.

1.920.eko Ekainaren 22an izendatzen dute euskaltzain Txomin Agirreren hutsunea betetzeko. Abenduaren 28an eman zuen sarrerako hitzaldia bere aurkezlea R. M. Azkue euskaltzainburua izanez. Hitzaldiaren titulua *"Izkuntz jakintzia ta euskeriaren bizitzia"*. Bertatik atera ditut ondoko lerroak, euskarari dagokionez, Altube ren izpirituaz jabe gaitezen. Hitz zorrotzak, gaurregun ere osorik aplika daitezkeenak:

> "Euskerearen bizitzia: esan beaŕik eztala dirudi baina bada: euskaltzaleok, euskerea maite dogula dinogunok, euskereari dagokon gauzeetatik gorengotzat, beiñentzat, nagosijentzat, beronen bizitzia euki bear dogu. Beronen edestija, beronen zaartasuna, beronen edertasuna, beroneri buruzko geure eretximeretxiak eta enparau guztija eztira ezer ere; bazterrera jaurti bear ditugu, euskeriaren bizitza bera, laguntasun eske, oiuka, deika, erostaka ikusten dogunean.
> Eta, eztabilku, gaur, oŕela, geure izkera maiteau?"

Nolanahi ere, Altuberi aurpegiratu zaion okerrik gogorrenetakoa bere lan gehiena erdaraz ematea da. Dela hamar egun hildako Jokin Zaitegiren hitzak dira ondorengoak:

> "Altuberengan aurkitu dudan akatsik handiena erderaz idaztea dateke. Beharbada, orduko euskaltzaletasuna ez zen oraingoaren aldean alderatzekoa; oraingoa askozaz zintzoagoa da hizkuntzari begiratuz. Edozer gai euskaraz eman nahi genuke. Hauxe ageri da euskal idazle gazteen artean.
> Nolabait, Altube bera ere ohartu zen horretaz, *Euzko Gogoa*-n euskaraz idatzi baitzituen "Erderakadarik Txarrenak" izeneko lanak, *Erderismos*-aren laburpen gisa."

Gernikako herriak, bestalde, lehen agintaritza ematen dio 1.931.ean. Postu honetan 5 urte iraungo du Bizkaiko gobernadorearekin ados ez zegoenez dimisioa azaldu arte.

Baina itzelezko ekaitza gainean zegoen. Seberoren moduko gizonen lana zeharo eragotziko zuen ekaitzak lehen tximistak botata zituen. Gau beltzak bere hagin eta hatzapa-

rrak erakusten zizkion Euskal Herriari. Seberok, "hemen ez dago gauza onik" aurreikusiz, herbesteko bidea aukeratzen du 1.936.eko Irailean. Eta Altubek, bere Herriaren oinazeak mindurik, bertan behera uzten ditu ordurarte esku artean zeramatzan lanak. Pabe-ko Hotel L'Europe filosofo kezkati baten egoitza bilakatzen da. Herriaren, gizonaren, oinazea da goitik behera arduratzen duena eta berau izango du ardatz urtetako ikerpenetan.

Hauen ondorioa *La Fonction de la douleur* obra dugu. Liburua atera ahal izateko Frantziako CNRS-ari egiten dion eskarian honela esaten du Altubek:

> "...herritar paketsuen sarraskiak-nere jaioterrian, Arrasaten, 43 pertsona afusilatu dituzte Francoren tropek-bultzatu nau arazoaren muina ikastera, hau da, zein datekeen munduko bizitzan gaizkiaren eta giza-oinazearen zergaitia."

Hogeitabi urtetako herbestaldia amaitzen da Sebero eta Gregoriarentzat 1.958.an berriro Gernikaratzean.

Sebero euskarari buruzko ikasketetara itzultzen da, lehengo indar eta maiztasunaz ez bada, bai esperientziak ematen dion ziurtasunaz. Baita gerra aurreko solasaldi luzeak ere itzultzen dira. Segundo Olaeta, Kastor Uriarte, Julio Bareño eta beste lagunen artean iragan denboretako uneak datoz gogora. Gernikako Abesbatzaren sorkundea izango da, edo Altuberen etxean asmatutako "Elai-Alai" koreografi Taldea, edo Kasinoan egunero egiten ziren xake jokaldiak, edo Seberoren lan eztabaidagarriak, edo Gernikako bonbaztapena...

"Aberriaren askatasuna kulturaren bitartez" Seberoren sloganeko uneak ziren haiek. Euskara eta musikaren bidez kontzientzi nazionalaren bila. Hauxe zen Altube-politiko haren ezaugarria. Euskaltzale politiko baino lehenago zen Altube harena. Gaurko gure politikoek, zuri nahiz gorriek, sarri ahanzten duten formula. Tornulari, legegizon, futbolari, arrantzale izateko lehendabiziz *herritarra* izan behar baita. Horixe zen Altube, herritarra.

1.961.eko Uztailaren 27an Gregoria hil da, bere aitak hain maitekiro lagundutako "Asilo Kalzada"-n. Laurogei urte zituen.

Hau dela eta, Seberok bizitokia aldatzen du Gernikako bertako Arrien-enera. Bere osasuna, bizitzan zehar arduraz zaindu duena, makaltzen dihoa. Hala ere, indarrik gelditzen zaio oraindik bere lagunak hartzeko. Arrasateko Bandan kide izandakoek bisitaldi bat egiten diote 1.962.eko udan, berari omenaldi txiki bat egiteko. Eta Seberok besoak zabalik hartzen ditu hunkipenak betetzen duelarik. Arrasateko bizitzaren orduak gogoratzen ari da. Aurrean ditu txikitango bere lagunak. "Errementari-tabernari" baten semea besterik ez zen denboretako lagunak. Eta orain bere tokia du irabazia euskal arloan. Urte asko iragan da linguistikako hildoa urratzen lagunduko zion Hovelacque-ren "Linguistique" liburua Azkuek utzi zionetik. Gehiago oraindik Gernikako herriaren ondarea diren "Marijesiak" bertsoak harmonizatu zituenetik. Beharrezko urratsak erabat itzaltzen ari zen beraren karreran.

1.963.eko Abuztuaren 27a. Gaur bezalako eguna. Seberok igarri egin du amaiera. Gogoko zuen Tino Rossiren ahotsa entzun nahi du azken aldiz. Beraren ezpainetatik "Lili Marlen" abestia hots motelaz sortzen da. Alemanez harturikako Pabo haren azkenengo gogoeta izango da. Malkoz beterik ditu begiak Lumon iganderoko Mezatan jotzen zuen "Goiz aldean zeruetan..." kanta entzutean.

Arratsaldeko 2.etan Seberoren bihotz nekatua betiko gelditzen da. Gernikako Eliza Nagusiaren kanpaiek gizon handi baten heriotzea ezagutarazten dute. Biharamunean, *beraren* Musika Banda lagun duelarik, Altuberen gorpua Gernikako kanposantuan da ehortzia, berak diseinatu eta gerturiko hilobian. Haren ondoan Gregoria eta honen gurasoak.

Kurutzeko marmorezko xaflan Seberok idatzitako olerkiak ederki mugatzen digu mundu honetatikako haren igaroaldia:

Jainkoak, Adanen bidez
zigorkatu ginduzanez,
lur-bizitza igaro dozu
pena askogaz, poz eskasez,
zerua irabazia dozu, bai!,
nekaldi orren ordaiñez.